IRAGARKIA, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «PB BABOR 6» izeneko proiektua; proiektu horretan proposatzen da Ortuellako udal-mugartean (Bizkaia), 28,6 MWko potentzia duten baterien bidez energia biltegiratzeko instalazioak eta hari lotutako azpiegitura eraikitzea.

Bat etorriz 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan -48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak (2020-04-24ko EHAA)- eta 24/2013 Legearen 53 artikuluan -24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa (2013-12-27ko BOE)- xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da PB BABOR 6 baterien proiektua. Izan ere, instalazio horretarako eskatu dituzte aurretiko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Esp.: 48-GE-Y-2024-00010.

– Eskatzailea: ENIGMA GREEN POWER 15, S.L.U.

– Kokapena: Ortuellako udal-mugartean.

– Aurrekontua (BEZik gabe): 17.782.493,88 euro BESS instalazioarena eta 7.822.151,69 euro hari lotutako azpiegiturarena.

– Helburua: baterien bidez energia biltegiratzeko sistema bat eta hari lotutako azpiegitura ezartzea.

– Instalazioaren ezaugarriak: JMA industria-ingeniariak 2025eko uztailean sinatutako BESS eta ebakuazio-linearen proiektuetan adierazitakoak (proiektuak espedientean daude).

– Eskaeraren xedea: aldez aurreko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Proiektu honi ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zaio.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Bilboko Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua) eta Interneteko URL helbide honetan: https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu ahal izango dira, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar egun balioduneko epean, egoki iritzitako alegazioak, bai euskarri fisikoan, idatziz, haren erregistro orokorrean, bai EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektroniko orokorraren bidez (https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/), bai Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduan.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk, behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek, jendaurreko



Dokumentu honen benetakotasuna J0D0Z-T7WHY-HT3Y lokalizatzailearen bidez egiaztatu daiteke Egoitza elektronikoan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea

Se puede contrastar la autenticidad de este documento mediante el localizador J0D0Z-T7WHY-HT3Y en la Sede electrónica: https://euskadi.eus/localizador

informazioaren izapide honetan egindako alegazioak, nahitaez, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dituzte.

Bilbao, 2026ko otsailaren 23a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.

ANUNCIO de la delegada territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Bizkaia, por el que se somete a información pública el proyecto denominado «PB BABOR 6» en el que se propone la construcción de una instalación de almacenamiento por medio de baterías de 28,6 MW de potencia y su infraestructura de evacuación en el término municipal de Ortuella (Bizkaia).

A los efectos previstos en el artículo 10 del Decreto 48/2020, de 31 de marzo, por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica (BOPV de 24-04-2020) y en el artículo 53 de la Ley 24/2013 de 26 de diciembre del Sector Eléctrico (BOE 27-12-2013), se somete a información pública el proyecto de baterías PB BABOR 6 para el que se solicita autorización administrativa previa y evaluación de impacto ambiental.

Exp: 48-GE-Y-2024-00010.

– Solicitante: ENIGMA GREEN POWER 15, S.L.U.

– Emplazamiento: término municipal de Ortuella.

– Presupuesto total (sin IVA): 17.782.493,88 euros para la instalación BESS y 7.822.151,69 euros para la infraestructura de evacuación.

– Finalidad: instalar un sistema de almacenamiento de energía con baterías y su infraestructura de evacuación.

– Características de la instalación: las recogidas en los proyectos firmados por el Ingeniero Industrial JMA, de julio de 2025, que obran en el expediente.

– Objeto de la solicitud: autorización administrativa previa y evaluación de impacto ambiental.

Este proyecto ha sido sometido a evaluación de impacto ambiental simplificada.

Lo que se hace público para que las personas interesadas y la ciudadanía en general puedan examinar la documentación correspondiente en la delegación territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Bizkaia, en Bilbao, calle General Concha 23-5ª planta, o en la siguiente URL: https://www.euskadi.eus/informacion-publica-de-proyectos-sobre-minas-y-energia/web01-a2energi/es/

Ante la delegación territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Bizkaia, se podrán presentar, bien en soporte físico por escrito en el registro general de la misma, o bien a través del registro electrónico general de la Administración Pública de la CAE en la siguiente url: https://www.euskadi.eus/registro-electronico-general/web01-sede/es/, o en las formas previstas en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las alegaciones que consideren oportunas en el plazo de treinta días hábiles a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio.

Se advierte que las personas jurídicas, las entidades sin personalidad jurídica y otros sujetos identificados en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, están obligados a relacionarse por medios electrónicos con las Administraciones Públicas para la realización de

cualquier trámite de un procedimiento administrativo. Con tal motivo, las alegaciones formuladas por cualquiera de ellos en este trámite de información pública deben, obligatoriamente, presentarse por medios electrónicos.

Bilbao, 23 de febrero del 2026.

La delegada territorial de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Bizkaia,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.